

JARRAIPIDEAK

115-A EREDUA AURKEZTU BEHARRA DUTENAK:

115-A eredia aurkeztu beharra dute ondoko pertsona edo entitate hauek, aitorpenari dagokion hilabete edo hiruhilabete naturalean zehar hiri ondasunen errentamendua dela eta atxikipen edo konturako sarreraren pean dagoen etekinik ordaindu badiete Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren edo Sozietateen gaineko Zergaren subjektu pasiboak:

- Pertsona juridikoak eta gainerako entitateak, jabe komunitateak eta errenta-leslepeko erregimenean dauden entitateak barne.
- Banakako enpresariak eta profesionalak, holako etekinak beren jarduerak burutzen ordaintzen badituzte.
- Egoitza Espainiako lurraldean ez duten eta establezimendu iraunkorra dela medio lurralde horretan diharduten pertsona fisiko, juridiko eta gainerako entitateak.

Atxikipenik edo konturako sarrerarik ez da egin beharko honako kasu hauetan:

- Enpresek beren langileentzako alokatutako etxebizitzak badira.
- Errentariak errentatzaile berberari ordaindutako errenta urtean 900 euros gorakoa ez bada.

- Errentatzaileak errentariaren aurrean egiaztatzen baldin badu uztailaren 23ko 573/1991 Foru Dekretuaz onartu ziren Ekonomi Jardueren gaineko Zergako Tarifaren Lehenengo Sekzioko 861. taldeko epigrafeetako batengatik zerga ordaintzeko egin beharra bete duela eta kuota berdin zero ateratzen ez bada.

- Etekinak Kreditu Entitateen Diziplina eta Eskuhartzeari buruzko uztailaren 29ko 26/1988 Legearen zarpigarren xedapen gehigarriko Bat atalean aipatzen diren finantza errentamendu kontratuen ondorioz sortzen badira, horien gaia hiri ondasun higiezinak direnean.

ATXIKITZAILEAREN IDENTIFIKAZIOA

Arabako Foru Aldundiko Ogasun Zuzendaritzaren Zergadunetik Harremanetarako Zerbitzuak ematen duen atxikitzailearen identifikazio etiketa itsatsi behar da.

SORTZAPENA

Ekitaldia.- Aitorpenaren aldiari dagokion urtearen lau zifrak jarri behar dira.

Epealdia.

Hiruhileko aitorpena bada (eskuarki) "TR":

| | |
|----------------------|----------------------|
| 1 = 1. hiruhilabetea | 3 = 3. hiruhilabetea |
| 2 = 2. hiruhilabetea | 4 = 4. hiruhilabetea |

Hileko aitorpena bada (enpresa handiak) (M):

01: urtarrila; 02: otsaila; 03: martxo; 04: apirila; 05: maiatza; 06: ekaina; 07: uztaila; 08: abuztua; 09: iraila; 10: urria; 11: azaroa; 12: abendua.

AITORPEN OSAGARRIA EDO ORDEZKOA

Ordezko aitorpena. "X" bat jarriko zaio laukitxoari, baldin eta aitorpen bat aurkezten bada, okerreko datuak jasotzen dituen beste aitorpen bat guztiz baliogabetzen duena.

Aitorpen osagarria. "X" bat jarriko zaio laukitxoari, baldin eta aitorpen osagarri bat aurkeztu bada. Aitorpen osagarritzat joko da aurkeztutako aitorpenean aitortu ez ziren datu berriak edo orduan jarri ez ziren datuak jasotzen dituenak.

AUTOLIKIDAZIOA

Diru etekinak:

01 laukia.- Errentatzaile kop.

02 laukia.- Alokairuen zenbatekoa: Aitoratzaileak hiri ondasun higiezin errentamenduari on-dorioz hila batean edo hiruhilabetean ordaindu dituen eta aitorpenaren pean dauden diru etekin osoen batura osoa jarriko da.

03 laukia.- Atxikipenen zenbatekoa.

Gauzako etekinak.

04 laukia.- Errentatzaile kop.

05 laukia.- Gauzako ordainketen balioa. Aitorleak hilean edo hiruhilekoan ordaindutako hiri ondasun higiezin errentamenduari on-doriozko konturako sarrerari lotutako gauzako ordainketen kopuru osoa jarri behar da; ordainsariok Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga eta Sozietateen gaineko Zergari buruzko araudietan ezarritakoaren arabera baliotsiko dira, hartukizun horiek zerga bateko edo beste subjektu pasiboak ordaintzen zaizkien aintzat hartuta.

06 laukia.- Konturako sarreraren zenbatekoa.

Likidazioa guztira.

07 laukia.- Sartzekoa: 03 eta 06 laukietan aitortutako atxikipen eta konturako sarreraren batura jarri beharko da.

AURKEZTEKO EPEA:

Hiruhileko aitorpena: Apirilaren, uztailaren, urriaren eta urtarrilaren lehenengo 25 egunetan, aurreko hiruhilabete naturalari dagozkion atxikipen eta konturako ordainketengatik.

Hileko aitorpena: Dagokion hileko aitorpen-aldiaren ondoko hilabetearen lehenengohogeita bost egunetan, uztailari dagokion aitorpena izan ezik, abuztuaren zehar eta hurrengo irailaren lehenengo hamar egunetan aurkeztuko baita.

DATA ETA IZENPEA

Inprimakia dataturik eta atxikitzaileak edo konturako sarrera egin beharra duenak edo bere legezko ordezkariak sinaturik egon beharko da.

INSTRUCCIONES

OBLIGADOS A PRESENTAR EL MODELO 115-A:

Están obligados a presentar el modelo 115-A las siguientes personas o entidades, cuando hayan satisfecho a sujetos pasivos del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas o del Impuesto sobre Sociedades, durante el mes o trimestre natural objeto de declaración, rendimientos sujetos a retención o a ingreso a cuenta procedentes del arrendamiento de inmuebles urbanos:

- Las personas jurídicas y demás entidades, incluidas las comunidades de propietarios y las entidades en régimen de atribución de rentas.

- Los empresarios individuales y los profesionales, cuando satisfagan o abonen dichos rendimientos en el ejercicio de sus actividades.

- Las personas físicas, jurídicas y demás entidades no residentes en territorio español que operen en dicho territorio mediante establecimiento permanente.

No deberá practicarse retención o ingreso a cuenta en los siguientes supuestos:

- Cuando se trate de arrendamientos de vivienda por empresas para sus empleados.

- Cuando la renta satisfecha por el arrendatario a un mismo arrendador no supere los 900 euros anuales.

- Cuando el arrendador acredite frente al arrendatario el cumplimiento de la obligación de tributar por alguno de los epígrafes del grupo 861 de la Sección Primera de las Tarifas del Impuesto sobre Actividades Económicas, aprobadas por el Decreto Foral 573/1991, de 23 de julio, y no resulte cuota cero.

- Cuando los rendimientos deriven de los contratos de arrendamiento financiero a que se refiere el apartado uno de la disposición adicional séptima de la Ley 26/1988, de 29 de julio, sobre Disciplina e Intervención de las Entidades de Crédito, en cuanto tengan por objeto bienes inmuebles urbanos.

IDENTIFICACIÓN RETENEDOR

Deberá adherir la etiqueta identificativa correspondiente al retenedor que facilita el Servicio de Relación con los Contribuyentes de la Dirección de Hacienda de la Diputación Foral de Álava.

DEVENGO

Ejercicio.- Se consignarán las cuatro cifras del año al que corresponde el período por el que se efectúe la declaración.

Período.

Si se trata de declaración trimestral "TR" (con carácter general):

| | |
|-------------------|-------------------|
| 1 = 1er Trimestre | 3 = 3er Trimestre |
| 2 = 2º Trimestre | 4 = 4º Trimestre |

Si se trata de declaración mensual (M) (grandes empresas):

01: enero; 02: febrero; 03: marzo; 04: abril; 05: mayo; 06: junio; 07: julio; 08: agosto; 09: septiembre; 10: octubre; 11: noviembre; 12: diciembre.

DECLARACIÓN COMPLEMENTARIA O SUSTITUTIVA

Declaración sustitutiva. Se marcará con una "X" la casilla en el supuesto de presentación de una declaración que anula completamente a otra declaración en la que se hubieran consignado datos inexactos o erróneos.

Declaración complementaria. Se marcará con una "X" la casilla en el supuesto de presentación de una declaración complementaria, entendiéndose como tal aquella que contiene datos nuevos no declarados u omitidos en la declaración primitiva presentada con anterioridad.

AUTOLIQUIDACIÓN

Rendimientos dinerarios:

Casilla 01.- Nº de arrendadores

Casilla 02.- Importe de los arrendamientos: Se consignará la suma total de los rendimientos dinerarios íntegros sujetos a retención procedentes del arrendamiento de bienes inmuebles urbanos satisfechos por el declarante en el mes o trimestre.

Casilla 03.- Importe de las retenciones.

Rendimientos en especie.

Casilla 04.- Nº de arrendadores

Casilla 05.- Valor de las retribuciones en especie. "Se deberá consignar la suma total de las retribuciones en especie sujetas a ingreso a cuenta, satisfechas por el declarante en el mes o trimestre, procedentes del arrendamiento de bienes inmuebles urbanos, valoradas éstas conforme a las normas reguladoras del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas y del Impuesto sobre Sociedades, según se satisfagan dichas percepciones a sujetos pasivos de uno u otro impuesto."

Casilla 06.- Importe de los ingresos a cuenta.

Total liquidación.

Casilla 07.- A Ingresar.- Deberá consignar la suma de las retenciones e ingresos a cuenta declarados en las casillas 03 y 06.

PLAZO DE PRESENTACIÓN:

Declaración trimestral: Durante los primeros 25 días naturales de los meses de abril, julio, octubre y enero, por las retenciones e ingresos a cuenta que correspondan al trimestre natural inmediato anterior.

Declaración mensual.- Durante los veinticinco días naturales del mes siguiente al período de declaración mensual que corresponda, excepto la declaración del mes de julio, que se presentará durante el mes de agosto y los diez primeros días naturales del mes de septiembre inmediatamente posterior.

FECHA Y FIRMA

El impreso deberá ir fechado y firmado por el retenedor u obligado a realizar el ingreso a cuenta o por su representante legal.

LEGE OHARRA. DATUEN BABESA

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan (Datuak babesteko erregelamendu orokorra) jasotakoa betetzeko xedearekin, jakinarazten dizugu ematen dizkiguzun datuak Arabako Foru Aldundiaren titulartasuneko Zergadunen Fitxategian sartuko direla. Datu horien tratamenduak zergak kudeatzeko, ikuskatzeko eta biltzeko egiten dira.

Datu horiek isilpekoak dira eta horixe bermatzen dugu, ez baitzaizkie jakinaraziko hirugarrenei, salbu eta legez baimentzen diren kasuetan.

Erregelamendu horretan aitortzen diren datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko, datuak ezerezteko, haien aurka egiteko eta datuak mugatzeko eskubideak egikaritu ahal izango dituzu Arabako Foru Aldundiaren Erregistroaren Bulegoan (Probintzia plaza 5, 01001 Gasteiz, Araba).

Informazio gehiago:

<http://www.araba.eus/web/LegezkoOharHedatua>

AVISO LEGAL. PROTECCIÓN DE DATOS

Con objeto de dar cumplimiento a lo establecido en el Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo de 27 de abril de 2016 (Reglamento General de Protección de Datos), le informamos que los datos que nos facilita van a ser incluidos en el Fichero de Contribuyentes titularidad de la Diputación Foral de Álava cuyos tratamientos se realizan para la gestión, inspección y recaudación de los diferentes tributos.

Garantizamos la confidencialidad de sus datos, no siendo comunicados a terceras personas fuera de los supuestos habilitados legalmente.

Usted podrá ejercitar sus derechos de acceso rectificación, supresión, oposición y limitación que reconoce el citado Reglamento dirigiéndose a la Oficina de Registro de la Diputación Foral de Álava, (Plaza de la Provincia, 5, 01001 Vitoria-Gasteiz, Álava).

Para más información:

<http://www.araba.eus/web/AvisoLegalAmpliado>